

Kultura

Elorrioko Pixontxis laukoteak Durangoko
40 Minutu Rock jaialdian joko du, bihar > 11



Tolerantziaren aldeko gola

Zornotzako Betigol areto-futboleko taldean
jokatzen dute Iraide Leginak eta Izaro
Antxiak. Transexualitatea bizi dute, eta
Betigolekoek publikoki babestu dituzte.
Tolerantzia aldarrikatu dute. > 6-7

Lehior Elorriaga

Epailleak artxibatu egin du Abasolok feminista bati ipinitako salaketa

Durangoko Plataforma Feministak iragarri du artxibatu egin dutela Paul
Abasolok feminista bati ipinitako salaketa. Adierazi dute ez dutela ezer os-
patzeko, hori zelako onartuko luketen ebazpen bakarra. Baina, jaso du-
ten babes eta konpromisoa ospatzekoak direla diote: “Eraso honek pizturiko
erantzun sozialak, horrek bai merezi duela su artifizialen sesio bat.” > 3

“San Andreseko ermita eta elkartea lapurtu egin dituzte” > 4

Nekane Bereziartua I
San Andreseko auzokidea



ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ
Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550
alkimax@alkimax.net / www.alkimax.net

GERNIKA
Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310
www.alkimax.net

Durango > 2

Memoriaren Plazan berbaldia
emango du Hernandezek

Iurreta > 4

Urki paper-dendak irabazi du
enpresa-proiektu lehiaketa

Atxondo > 8

Oinezkoiei bideratutako
herria gura dute atxondarrek

Zornotza > 9

Gaur ekin diete Autzaganeke
tunelak amaitzeko lanei

Herririk herri

“Madalenako autobus geltokia ez zaigu duina iruditzen”

Autobus geltoki berri baten azterketa egingo dute hirigintza plan berrian

DURANGO Markel Onaindia Madalenako autobus geltokiarren baldintzak hobetzeko beharrezko pausoak emango ditu udalak, eta Aldundiari ere eskaera hori egin dio, bere esku-meneko gaitan. Horrez gainera, Durangoko hirigintzan aldaketak ekarriko dituen planean (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) autobus geltoki berri baterako azterketa egitea aurreikusi dute. EH Bilduko Rosa Mintegik aurkeztu zuen mozioa: “Madalenako autobus geltokia ez zaigu duina iruditzen”. PP-ren abstentzioa kenduta, alderdi guztiek babestu zuten mozioa.

Durangon euria sarri egiten duela kontuan hartuta, Madalenan “aterpe gutxi” dagoela kritikatu du Mintegik. Gainera, eserleku kopurua ere urria iruditzen zaio, eta bertan adineko

pertsona ugari zain egoten dela esan du, batez ere Galdakaoko ospitalera doazenak. Bestalde, espaloia baxua dela adierazi du, eta autobusetik urrun geratzen dela. Inguruan beste zebrabide bat eskatu du, gainera.

Pilar Riosek (PSE-EE) azaldu du udal gobernua Aldundiagaz egon dela, aterpearen gaiari soluzioa emateko asmoz. Momentuz, ez du neuririk aurreratu.

Tren estazioa?

Durangoko Udala aurtan garatzen hasiko da plan orokor urbanistikoa, eta herritarren partaidetzagaz zehaztuko dituzte herrian egin beharreko aldaketak. Autobus geltokiaren kasuan, berri bat egitea erabakitzen bada, tren estazio zaharreko lursaila izan ahal da aukeretako bat. EH Bildurentzat, zabalgu hori le-

ku egokia litzateke. Eredu hori erabilera barik dago, 2012an tren lurperatu zenetik.


Saharara bidaia

Osoko bilkuran, Sahara ere berbagai izan zen. Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetara bisita egingo dute asteburuan Durangoko lau zinegotzik: Humberto Jaiok (EAJ), Eider Uribek (EH Bildu), Aritz Brabok (EH Bildu) eta Fran Garatek (PP). Bihar, Saharar Errepublikakoaren 40. urtemuga betetzen da. Udalak adierazpena onartu du aho batez, eta sahararren autodeterminazio eskubidea babestu du.

Bestalde, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak bihar errefuxiatuen alde Bilbon egingo den martxarako deia egin zuten, eta PSE-EEK babestu zuen.



Madalenako geralekuan aterpe gutxi dagoela kritikatu du EH Bilduk.



Martxoaren 2ra arte egongo da zabalik Memoriaren Plaza.

Hernandezen berbaldia, Memoriaren Plazan

“Era partzial” batean landu dela uste du EH Bilduk

DURANGO M.O.

Eguaztenean inauguratu zuten Memoriaren Plaza, Eusko Jaurilaritzako Gogora Institutuak Durangon antolatu duen ekimena. Aintzane Ezenarro Gogorako zuzendaria, Aitziber Irigoras alkatea eta Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea egon ziren, besteak beste.

Talde armatuek zein indarkeria polizialak eragindako hainbat biktimen testigantzak proiektatzen dira karpan, eta norbere ekarpenak egiteko au-

kera ere badago. Berbaldiei dagokienez, astelehenean, Mari Carmen Hernandezek (ETak hildako Jesus Mari Pedrosaren alarguna) eta Amaia Etxanizek (BVERen biktima) egingo dute berba, 19:00etan. Hernandezek Durangon eskainiko duen lehen berbaldia izango da.

“Era partziala”

Ekitaldiak “interesgarriak eta beharrezkoak” iritzi arren, Memoriaren Plazak Durangoko errealitatea “era partzial”

batean lantzen duela uste du EH Bilduk. Dispersioa edota preso gaixoen egoera ere giza eskubideen urraketak direla dio: “Iraganera begiratzea ondo dago, baina errealitate hauen aurrean ezin gara mutu geratu”. Gainera, egitaraua osatzeko, alderdien eta herriko eragileen elkarlana ez dela bilatu kritikatu du EH Bilduk.

“Kaxoi batean”

Gogora Institutuak Memoriaren Mapa aurkeztu zuen azaroan, udalek herrika osatzeko. Bada, “udaleko kaxoi batean gordeta” dagoela esan du EH Bilduk, eta horregatik, batzorde berezi bat sortzea proposatu du. Herriko eragileen agerraldiak eta herritarren lekukotzak jasoko lituzkete bertan.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko otsailaren 26a
14. urtea - 622. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña eta
Paul Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





Hainbat herritarrek babestu zuten salatutako feminista, epaitegira deklaratzeko joandakoan.

Abasolok feministari ipinitako salaketa artxibatu egin dute

Plataforma Feminista: “Erasotzaileak seinalatzen jarraituko dugu”

DURANGO M.O.

Paul Abasolok Durangoko mugimendu feministako kide bat salatu zuen, bere aurka irainak egitea egotzita. Abasolori 3 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zioten sexu erasoengatik, baina Espainiar Gobernuak indultua eman zion 2011n. Gerroztik, mugimendu feministek publikoki salatu dute bere kasua, pankarten bidez, esaterako.

Epailearen aurrean, mugimendu feministaren aldetik “jazarpena” sentitu izana azaldu zuen, baina salatutako emakumea ekintza horietan ikusi ez izana ere bai. Bada, epaileak artxibatu egin du bere salaketa.

Durangoko Plataforma Feministak eman du artxibatzearen berri: “Pozik gaude, baina ez dugu ospakizunik egingo. Ez dugu zer ospatu. Ebazpen hau onartu-

ko genukeen bakarra delako”. Feministen lana ez dela etengo esan dute: “Erasotzaileak seinalatzen eta emakumeentzat bizitza duinak aldarrikatzen jarraituko dugu, tinko”. Bestalde, mugimenduak jasotako babes eskertu dute, eta poztekoa dela diote: “Eraso honek pizturiko erantzun sozialak, horrek bai merezi duela su artifizialen sesio bat”.

Ardoa platerean ere bai, Ardosaltsanen

Martxoaren 5a, ardo eta delikatessen feria eguna

DURANGO M.O.

Aurtengo Ardosaltsan feriaren edizioa ate joka dago. Martxoaren 5ean egingo da ardoaren eta delikatessen produktuen azoka, Durangoko Landako Gunean, eta hainbat nobedade ekarriko ditu, gainera. Nabarmentzeko, Ardoa Platerean ekimena: ardoagaz landutako hainbat plater eskainiko dituzte bertako jatetxean.

Aurten, eguerdian etenik egingo ez duela ere bada nobedade, Iñaki Uribe antolatzaileak azaldu duenez. Goizetik iluntzera, hainbat produktu dastatu

ahal izango dira: 40 bat upategik ekarritako ardoak, dastaketak, koktelak, pintxoak, sushia, itsaskiak...

Sumum espazioa

Horrez gainera, berezitasunik ez da faltako. Sumum espazioa izango da horren erakusle. Gainera, Leioako sukaldaritza eskolakoei, bost minututan ardoa eta jatekoa zelan dastatu erakutsiko dute. Ogia egiteko stand bat, liburutegi gastronomikoa, eta bidaia gastronomikoen eskaintza ere egongo dira Landako Gunean.



Gastronomiaren zale ugari batzen ditu Ardosaltsan azokak.



Herritarren Arreta Zerbitzuak 8,6ko nota lortu du erabiltzaileen inkestan.

WhatsApp erabiliko dute Arreta Zerbitzuan

Kutzazain automatikoan 5.500 eragiketa egin dira

DURANGO M.O.

Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) WhatsApp zerbitzua eskainiko dute hemendik aurrera. Beraz, telefonoko mezu horien bidez ere eskaerak eta tramiteak egin ahalko dituzte durangarrek. Aitziber Irigoras alkateak azaldu du HAZ hobetzeko lan etenbakoan dabiltzala, eta WhatsApp aplikazioaren erabilera da pausoetako bat.

Tramiteak egiteko kutxazain automatikoa 365 egunez zabalik egongo dela esan du alkateak, eta bertan, eragiketa gehiago

egiteko aukera ere eman gura dutela. Bigarren kutxazain bat ipintzea ere aztertzen dabilta, Landakoko kiroldegia lako leku jendetsuren batean.

Nota altua

Kutzazaina urrian ipini zuten, eta ja 5.500 eragiketa burutu dira bertan. Erabiltzaileen artean inkesta bat egin dute, eta HAZek lortutako nota 8,6koa izan da 10etik. Langileen tratua 9,4koa jaso du, eta Irigorasen berbetan, “profesionaltasuna, enpatia eta kalitatea” islatzen dira.

Plaza ondoan dagoen eraikinaren teilatua konponduko dute, aurten

Joan zen barikuan onartutako aurrekontuetako inbertsio nagusia da

IZURTZA J.D.

Joan zen barikuan 2016ko udal aurrekontuk onartu zituzten, Izurtzan, Gobernu Taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin. EAJ abstentitu egin zen.

2015ean ez zuten aurrekonturik onartu, eta 2014tik luzatutakoekin aritu ziren. Aurten, 639.700 eurotan parekatu dituzte sarrerak eta irteerak. Inbertsioetan, nagusiki, Tokiko Agenda 21ean herritarrek pla-

zaratutako beharrak jaso dituzte, Iker Ballarin Gobernu Taldeko zinegotziak adierazi zuenez.

Inbertsioetako 36.500 euro plaza ondoko eraikineko teilatua konpontzeko erabiliko dute “filtrazioak” daudelako eta, oro har, ez dagoelako egoera onean, Lorea Muñoz alkatearen esanetan. Eraikin horretan osasun zentroa, Argintxu elkarte eta jubilatuen elkarte daude, esaterako. Beste 25.600 euro Santo

Tomaseko parkea konpontzeko gorde dituzte. Txintxaunak berriztu, eta behealdean babeserako zorua jarriko dute. Herriguneko plazan dauden txintxaunak, aldiz, bi-hiru metro erdirantz mugitzea da asmoa, plazatik tunelerako pasabide zuzenagoa geratu dadin.

Elizaldeko alde batean, ur azpiegituraren hoditeria nagusia aldatuta dago, eta aurten, hodi horretatik etxeetarako hargu-neak egitea gura dute.

EAJren abstentzioa

EAJk bere abstentzioaren arrazoiak eman zituen. Besteak beste, aurrekontuak osatzeko eurekin aurrelanik ia ez dela egon azaldu zuen Oskar Zarrabeitia zinegotziak. Aurrekontuak eztabaidatzeko Ogasun Batzordea udalbatzarraren aurreko egunean deitu izana kritikatu zuen. Gainera, urteko aurrekontuak ez ezik, herriko arazoei irtenbidea bilatzeko legeintzaldi osora begirako plangintzak landu beharko lirakeela adierazi zuen.



Joan zen barikuan egin zuten aurrekontuen udalbatzarra.

“San Andreseko ermita eta elkarteak lapurtu egin dituzte”


Auzokideak harrituta geratu dira ermitaren eta txokoaren jabe eliza dela jakitean



Iurretako San Andres auzoan, ermita ondoko txokoa 1993an erregistratu zuen elizak.

IURRETA Jone Guenetxea
Eliza katolikoak Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako 525 ondasun bereganatu edo inmatrikulatu ditu 1978tik hona, Jabetzaren Erregistroak emandako datuen arabera. Hau da, ez zeuden inoren izenean, eta elizak bere jabetzan erregistratu ditu. Joan zen astean, gai honen inguruko erreportajea ANBOTOk azaldu zuen moduan, San Andres auzoko ermita eta txoko edo elkarte gastronomikoa agertzen dira zerrenda honetan. Txokoa ermitaren alboan eraiki zuten auzotarrek, 1990 bueltan, eta geroztik, bazkari zein karta-jo-

koen bilgune izan da; eurek ordaindu dituzte gastuak. Elizak 1993an inmatrikulatu zuen.



NEKANE
BEREZIARTUA

Nekane Bereziartua San Andreseko auzokideak lapurretatzen jo du elizak ermita eta elkarte gastronomikoa bereganatzea. Azaldu duenez, bere sasoiaren abadeak, mezaoste batean, bere aitari galdetu zion ermita eta txokoa noren jabetzan zeuden.

“Nire aita azaldu zion abadeari ermita auzotarrek altxatu zutela, eta lurak auzokide batek bere borondatez emandakoak izan zirela. Nire aita esaten zuen ez genuela paperik behar, guk badakigula ermita auzokoa dela. Papera baino garrantzitsuagoa zen emandako berba”. Bere aita eta sasoi hartan jardun zutenak hilda daudela gogoratu du San Andreseko auzokideak, eta ezingo dutela, beraz, azalpenik eman. “Elkarteak auzokideek dirua ipinita eta auzokideek lan eginda sortu da”. Orain, elizak dio Santa Anak erabakiko duela San Andresen zer egin?”.

Urki paper-dendak irabazi du enpresa-proiektuen lehiaketa

Zazpigarren edizioa duen lehiaketan aurkeztutako proiektu bakarra izan da

IURRETA A. Basauri
Urki paper-dendak irabazi du Iurretako VII. Enpresa Proiektuen Lehiaketa. Aurretik zegoen denda berregokitu du

Haizea Ruiz de Pinedok, eta “jardueragaz jarraitzeko asmo hori” saritu gura izan du udalak. Horrela azaldu du Iñaki Torikaguena alkateak. Aurkeztu

den proiektu bakarra izan da, eta 6.000 euro irabazi ditu.

Jarduera berri lez hartu dute, alkateak esan duenez: “Askotarikoak saltzen dituzte, eta aurrealdea konpondu dute. Jarraipen asmo hori saritu dugu. Izan ere, ez da erraza negozioa hastea autonomo lez. Enpresa berriak sortzea nahi dugu, baina, daudenak finkatzea eta jarraitzea ere bai”. Jolasak, liburuak, litxarriak... saltzen dituzte. Eskolako amantak eta baserritar jantziak ere bai. Sariaren %70 jaso du, jada, azken hiru urteetan herrian bizi den gasteiztarrek. Urtea igarota, jarraitzen badu, beste %30a jasoko du. Laguntza hauen garrantzia nabarmendu du Ruiz de Pinedok.



Iurretako Udalak sustatutako lehiaketa irabazita, 6.000 euroko laguntza lortu du.

Alegria garaile Mallabiko asto probetan

MALLABIA P.B.

Pasa den ostiralean jokatu zen Mallabiko pisu neurtuko asto proben 9. saria, herriko probalekuan. Bermeoko Janire Alegriaren astoak irabazi zuen txapelketa, 67 untzako marka jarritz 331 kiloko pisuan. Bigarren postua Goiherri-Erandioko Miren Olabarrietaren astoak lortu zuen, 382kiloko pisuarekin 66 untza eta laurden eginez. Podiuma Gamizko

Bermeoko Janire Alegriaren astoak irabazi du aurtengo ekitaldia, 67 untzako markarekin

Torrentegik bete zuen, 54 untza eta hiru laurdeneko marka ezarritz 411 kiloko pisuan. Durangaldeko lehen sailkatua Iurretako Partiliku Taldea izan zen, 53 untza eginda 380 kiloko pisuarekin. Bosgarren postuan Taberna Zaharrako astoak lortu zuen, 52 untza eginda. Seigarren postuan Ugalde, zazpigarrenean Satxibar, zortzigarrenean Irazola, bederatzigarrenean Egia eta hamargarrenean Erleaga sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Jabekuntza Eskola kide berriei zabalik

BERRIZ A.U.

Berrizko Emakumeen Jabekuntza Eskolan talde bi sortu ziren ikasturte hasieran, eta egunotan aurkezpen batzarrek egiten dabilta, taldeotan egiten dutena azaltzeko. Izan ere, tailerrak irekiak dira, eta interesa duten emakumeek aukera daukate ikasturtean zehar ize-na emateko.

Gaur goizean egin dute Jabekuntza Eskolako talde baten aurkezpena. Emakume etorkinen topaketa programa abiatu zuten irailean, eta barikuro, 10:00etan, elkartzen dira euren intereseko gaiak lantzeko; egoera pertsonala eta lana topatzeko baliabideak landu dituzte, esaterako. Barikuro, Maroko, Senegal eta Maliko emakumeak elkartzen dira, eta, esan bezala, taldea partaide berriei irekita dago. Emakume etorkinek eurek jo zuten udaletxera horrelako espazio bat eskatzen; elkartu, eta formazioa jasotzeko gune bat gura zuten.

Eguaztenean, 16:30ean, izango da Jabekuntza Eskolako beste taldearen aurkezpen batzarra. *Mindfulness* teknikari buruzko tailerra da, eta emozioak, pentsamenduak, sententzio fisikoak eta sentimenduak kudeatzen ikasten dabilta.

Hazilan, gazte kualifikatuei zuzendutako programa, abian

DURANGALDEA J.G.

Durangaldeko Amankomunazgoak Hazilan proiektua jarri du martxan. Ekimen honek Durangaldeko gazte kualifikatu langabeak eta herriko enpresak uztartuko ditu. Prentsa oharrean azaldu dutenez, Europako Gizarte Funtsak %50ean finantzatzen du programa hau. Bost urteko iraupena izango duen programaren helburua gazte hauen laneratzeari erraztea da. Langabezian dauden eta ikasten ari ez diren 20-35 urte arteko gazte kualifikatuek parte hartu ahal izango dute Hazilanean.

Proiektuan aurreikusten denez, 80 orduko prestakuntza prozesua eskainiko diete. Banakako saioak ere izango dituzte. Era berean, batez beste lau hilabeteko iraupena izango duten praktikak burutzeko aukera izango dute.

Jaiak antolatzeke batzarretan parte hartzeko gonbita, martxoaren 4an

OTXANDIO J.D.

Jai Batzordea aurtengo santamania egituratu eta antolatzeke batzarrek egiten hasiko da. Uztalean ospatuko dituzten jaiak modu parte-hartzailean osatu gura dituzte, eta batzarretara bertaratzeke gonbita luzatu diete herriko norbanakoei zein kirol eta kultur elkarteei. “Danon ekarpen txikiek jai herriko handiak egiten dituzte”, animatzen du herritik zehar banatutako karteletan jaso duten goiburuek.

Lehenengo batzarra martxoaren 4an egingo dute, datorren asteke barikuan. Plaza ondoko Bolalekuan batuko dira, 18:30ean. Bertan, iazko santamania aztertu ostean, aurtengo nondik norakoak erabakitzen saiatuko dira, eta bertaratzen diren denek jaien gaineko euren iritzia plazaratzeko aukera izango dute.

Izaro Antxia (1981, Portugalete) eta Iraide Legina (1989, Zornotza) | Zornotzako Betigol taldeko futbolariak |

“Pertsona arimak egiten du, eta zuk nahi bezala bizi behar duzu”

Tolerantzia ardatz du Betigol taldeak, eta transexualitatea bizi duten bi jokalariai babesteaz gainera, aldarrikapena egin du

> ELKARRIZKETA M. Onaindia
Prozesu zail bat garatzeak ematen duen sakontasunagaz berba egiten dute Iraide Leginak eta Izaro Antxiak, baina, aldi berean, ilusioz eta umorez ere bai. Asko dute esateko eta erakusteko. Mutilen gorpuzkeragaz jaio ziren, baina txikitatik hasi ziren bestelakoa igartzen; neska sentitzen ziren. Pertsona transexualak dira gizartearen begietara. Duela zazpi bat urte hasi zen Iraideren etapa berria, eta duela hile gutxi Izarorena. Euren bizi-penak eta areto-futbolarekiko afizioak elkartu ditu Zornotzako Betigol taldean.

Betigol taldean jokatzek zer suposatzen du zuentzat? Zer ematen dizue?

Iraide: Nik inoiz ez dut futboleaz jokatu. Afizio lez, umeei irakatsi izan diet, eta orain talde baten egotea itzela da. Partidu guztietara eta Ligara ere joan gura dut! Zelaitik irten ere ez, kasik [barrez]. Kristoren ilusioa ematen dit.

Izaro: Urte asko daramat areto-futboleaz jokatzen. Portugaleteko talde baten koordinatzailea naiz; beste eginkizun batzuk dauzkat han, eta jokatzeko ez da garrantzitsua. Iaz mutilen taldeko jokalaria nintzen, eta aurretik euren entrenatzailea naiz. Jokatzeko soilik ere nahi nuen, eta hemen egin dezaket hori. Taldeko beste bat naizela sentitu gura dut, arazorik eduki barik.

Betigol talde tolerantze lez aurkeztu da. Babestuta sentitzen zarete?

Iraide: Tolerantzia, errespetua... Denok jokatu ahal dugun talde bat izatea, horixe da susta-

tu nahi duguna. Eroso sentitzen gara, eta aldarrikapen modura ere erabili gura dugu.

Izaro, zuk liga ofizialean jokatzeak arazoak eduki dituzu, ezta?

Izaro: Bai. Ikasturte honetan jokatu gura nuen, eta oraindik saiatzen nabil. Debuta egitea gustatuko litzaidake, eta horretan nabil. Lehenengo, nortasun agiria lortu behar dut, baina hori baino lehenago debutatu nahiko nuke, aurrekari hobe bat markatuko litzatekeelako. NANA traba bat da, eta gainera, urte biko hormonazioa egitea eskatzen du. Bi urtez jokatu barik egotea ez zait justua iruditzen. Eusko Jaurlaritzako diskriminazioaren aurkako sare baten bidez, nire kasua lantzen gabiltza. Gainera, ez dakigu norrena den eskumena. Bizkaiko federazioan galdetu dut, eta esan didate Espainiakoaren ardura dela, baina ez dute ezer adierazten. Bestalde, talde batzuetan ez didate ezta erantzun ere egin, jokatzeak eskaera egitera joan naizenean. Ezezko asko jaso ditut.

Emakume izanda, beste traba batzuk ere ezartzen dira...

Izaro: Nazioarteko Olinpiar Batzordeak ateratako azken ebazpenean, ebakuntzarik barik jokatu ahal dela dio. Baina emakumeak, gure kasuan, hamar nanogramo testosterona baino gutxiago-edo edukitzea beharrezko jotzen dute. Beraz, aparteko traba bat daukagu emakume izatearren. Abantaila fisiokoaren gaiagaz arrazoitzen dute batzuek; nik, hormonazioa hasi aurretik, 10 kilometro 54 minu-



Lehior Elorriaga

tutan egiten nituen korrika, eta orain, ordubete eta 4 minututan. Lasterketa gehienetan azkenetako izaten naiz [barrez].

Zelakoak izan dira zuen prozesu pertsonalak? Noiz hasi zineten konturatzen neska zinetela?

Iraide: 20 bat urteagaz joan nin-

zen elkartera, baina gaiagaz bueltaka, nerabezaro guztian zehar. 4 edo 5 urteagaz hasi nintzen konturatzen. Gure garaiak oso desberdinak ziren oraingokin alderatuta, eta zalantza handiak nituen, ez zegoen-eta informaziorik. Lehenago ez onartzeagatik asko damutzen naiz.

Izaro: 4 edo 5 urteagaz ere, ikastolan, ez nintzen mutil sentitzen. Beste gauza bategatik bullyn-ga [eskolako jazarpena] jasan nuen, eta uste nuen ez nuela biziraungo nire sentipenena jakingo balitz. Gorde egin nuen. Gainera, neska sentituta ere, emakumeak gustatzen zitzaiz-

hitz #gomendioak
artekalea 14, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUEZTAT LILI ETA BIKO Ramón Salazarbitoria (2015)	UME ETA GAZTEENTZAT BIDAIA MUNDUAREN AMAIERARA Henning Mankell (2005)	MUSIKA CHA CHA CHA 1955-1965 Abelardo Barroso (2014)
---	--	---

A. Urreta podólogo

Podinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214/08

“*Denok jokatu ahal dugun talde bat izatea, hori da sustatu nahi duguna*”

“*Kirol mailan, nire ilusioa apirilean edo maiatzean debuta egitea da*”

kidan, eta hori, nire izaera ezeztatzen jarraitzeko beste aitzakia bat izan zen. Horrela egon naiz duela gutxi arte. Argazkiak gorroto nituen, eta orain ez.

Iraide: Zuzenbideko 2. mailan, gaiaz gehien zekiena nintzen, baina suspenditu egin nuen.

Gizarte tolerantet batean bizi garela esan ohi da...

Izaro: Lehen baino tolerantetagoa agian bai, baina ez nahikoa.

Iraide: Bai eta ez. Tolerantzia bizi izan dut unibertsitatean, lanean... Inporta zaidan jendeak onartu eta errespetatu du. Instituzioekin ez dut arazorik eduki, bai ordea Zornotzako anbulatorioko funtzionarioagaz. NANA aldatuta ere, ez zidan Osakidetza karneta eman nahi. Erregistroko autoa eta txostena eskatzen zizkidan. Haserretu, eztabaida irabazi, eta hiru asteira karneta jaso nuen.

Izaro: Durangoko Sasikoa taldeagaz ere entrenatzen nabil, eta lehendik [mutil lez] ezagutzen ninduten arren, lehen egunetik inolako arazorik barik ibili naiz. Donostian, Gehitu erakundeko taldeagaz ere oso gustura nabil, eta asteburuetan lasterketetan parte hartzen dut.

Lanean zelan?

Izaro: Koordinatzailea Zagozan dago, eta bariku batean han agertu nintzen, itxuralduta. Ez zuela espero esan zidan, baina, hurrengo astelehenean, erabiltzaile datuak eta helbide elektronikoa aldatuta nituen. Informatika zerbitzu batean egiten dut lan, eta bisitak egitean ez dut arazorik eduki.

Iraide: Nire lanean ere alde zurretik ezagutzen ninduten, eta lan ona egin nuen. Baina, galdera da: euregaz lehendik lanik egin ez banu, gero kontratatuko ninduten? Airean dago.

Eta zuek talde berean egotea estimatzen duzue?

Iraide: Hori da txarren daramadana, hau aguantatzea! [barrez].

Sexu aldaketaren prozesua amaitzen nenbilela etorri zen bera. Berak bide erdia dauka eginda, eta badaki zer egin dezakeen eta zer ez.

Izaro: Aurten ebakuntza egingo dut. Nik berarengandik ikasten dut, eta nik futbolearen erakusten diot [barrez].

Antia Fernandez boleibol jokalaria galiziarren kasua ezagun egin da. Zuen debuta ere garrantzitsua izan daiteke.

Izaro: Ez zait gustatzen zalaparta mediatikoa, baina aldarrikatu egin behar dela uste dut. Antia ezagutzen dut, eta berak horma bat bota du. Lan gogorra egin du, eta ezezkoak jaso arren, lortu du azkeni. Aldi berean, oso triste da, 2016an, federatutako transexual bat albiste izatea. Normala behar luke, baina horretarako, jende gehiago oldartu behar da.

Zelan begiratzen diozue etorkizunari?

Iraide: Etorkizun luzeari barik, gaurkoari begiratzen diot. Ea ikasketak amaitzen ditudan, lehenik eta behin. Askok esaten didate irakasle izateko, beste batzuek abokatu... Momentukoa ondo irtetea, ama izatea eta futbolearen jarraitzea gura dut. Ea liga irabazten dugun! [barrez]. Ez dut uste bizitza berri bat denik, batzuek dioten lez, baina bai eta pa berri bat.

Izaro: Ez naiz damutzen lehen bizitakoaz. Nire parte da, eta asko ikasi dut horri esker. Aurrerantzean? Bada, lanean oso pozik nago, eta horretan jarraitzea nahiko nuke. Bestalde, psikologia ere ikasi nahiko nuke, urrutiko hezkuntzan. Kirol mailan, nire ilusioa apirilean edo maiatzean debuta egitea da. Portugaletako Iraultzaileak taldekoekin berba egin dut horretarako, izan ere, Betigol hurrengo ikasturtean hasiko da liga ofizialean.

Zer mezu bidaliko zenikete zuen antzeko bizipena izan eta ausartzen ez denari?

Izaro: Jakinda garaipena ez dela %100ean lortzen, ausartzeko esango nioke, eta kalera irtetea ona dela, askatasuna ematen dizulako. Askatasunik barik ez gara ezer. Iraidek eta biok zortea eduki dugu gure familia eta inguruan, baina beste jende batek ez. Kirola oso ona da bizitzarako, eta kalean jendeagaz bizitzen duzuna ezin da ezigatik aldatu.

Iraide: Pertsona arimak egiten du, eta zuk nahi bezala bizi behar duzu. Ez dago argirik iluntasunik barik, baina ausartu, borrokatu, eta beldurra kendu. Izan zaitez zu. Bizitza hobetuko da.



Betigol taldea osatzen duten jokalariek batzuk, talde argazkian, Ganeko entrenamendu zelaian.



Izaro eta Iraide, elkarrizketa egin aurretik ateratako argazkian.

Jokalariek gehiago eta abonatuak behar dituzte Betigol taldean

Irabaztea baino, ondo pasatzea eta ikastea dira taldearen helburuak

Betigol taldea berezia da, baina ez bakarrik tolerantet delako sexu edo genero arloan. Balioz jantzitako taldea da. Sortzailea ama koadrila bat izan zen, euren bizitzetako etapa berri horretan, aisialdirako aukera bat areto-futbolearen topatu zutenak. Gaztetxoak zirenean, kirol horretan ibili ziren batzuk, eta berriro piztu zitzaaien sugarra.

Horrez gainera, ikuspegi solidarioa ere badute. Euren talderako bazkideak eta abonatuak behar dituzte, gastuei aurre egiten laguntzeko. Baina, behar baino diru gehiago lortzen badute, Zornotzako Accion Social Amorebieta elkarteari emango diote dohaintzan. Laguntza ekonomikoa behar duten zornotzarrekin egiten du lan elkarte horrek. Beraz, Betigol taldeak bere

partaideengan sinesten du, baina gizartearengan ere bai.

Jokalariek bila

Momentuz, hamabi jokalariek daude taldean, eta liga ofizialari begira, gehiago behar dituzte. Izan ere, gehiago egoten bada, partiduetan txandakatu ahal izango dira. Lehiakorrak izan gura dute, baina irabaztea baino gehiago, ondo pasatzea eta ikastea dira helburu nagusiak, Izarok kontatu duenez. Giro ona igartzen da taldean,

“Ligan, motibazio eta ilusio gehien edukiko duen taldea izango da”, dio Iraidek

eta itzelezko ilusioa ere bai: “Ligan, motibazio eta ilusio gehien edukiko duen taldea izango da”, dio Iraidek.

Aniztasuna topatuko dute taldera batzen diren neskek, eta horri balioa eman dio Iraidek. Elkarren arteko errespetua izango da ardatz.

Abonatuak, mutilak ere

Bazkideek entrenatzeko eta jokatzeko eskubidea edukiko dute, eta baita batzarretan parte hartzeko ere. Abonatuak kasuan, ez dute botorik edukiko batzarretan. Abonatuak figura mutilei ere zabalik dago, baina laguntzeko bakarrik.

Martitzenetan eta eguenean entrenatzen dira, Ganen, 20:00etan. Jokatu edo lagundu gura duenak, edurne.betigol@gmail.com helbidera idatzi ahal du.

Autoei begirako Apata beharrean, oinezkoak lehenesten dituen gura dute herritarrek

Espazio publikoa berrantolatze bidean, herritarren kezka jasotzen dabilta Kale Irekiak saioetan



Kale Irekiak jardunaldien barruan egin zen Emakumeen Topaketa saioko irudia. Urak Bide Taldea

ATXONDO J.Derteano

Apatako espazio publikoa zelan berrantolatu pentsatzeko, Kale Irekiak izeneko hainbat saio ireki egiten dabilta Urak Bide Taldeko kideak. Bertan, herritarrek euren iritzia eta ikuspegia eman dute.

Herritar denei edo kolektibo zehatzei —emakume, nagusi, ume...— mugatutako batzarrak bideratzen ari dira, baina denetan ikuspegi kolektiboa dute helburu. Esaterako, 'Emakumeen Topaketan' gizon zein emakume, ume zein heldu, herritar askori eragiten dieten kezka azaldu ziren. "Autoak, gaur egun, alde denetara heltzen direla oso barneratuta dute, espazio dena hartzen dutela, eta, alde horretatik, erabakiren bat hartu behar dela", dio Saioa

Zuazubiskar Urak Bide Taldeko kideak. Oinezko bide denei batasuna emango liekeen sare osatu baten beharra ere plazaratu zuten. Eraikin publikoetarako irisgarritasuna da beste kezka bat. Esaterako, osasun zentroaren kanpoaldeak aparkaleku batera ematen du, eta anbulantzia ezin da atera heldu larrialdirik balego.

Eskolarako bideak eta eliza inguruko zonaldeak kezka biak batzen ditu. Irisgarritasunaren aldetik, eskolara joateko itzuli handia eman beharra dago atzetik, eta aldapa gogorra egiten zaie ume-karrotxoekin doazenei, batez ere edadekoak badira. Auto-oinezko ereduari dagokionez, sasoi batean eliza inguruan plaza lez erabiltzen zena, gaur egun aparkaleku moduan erabiltzen da, eta umeak hesietatik barrualdera baino ezin dira jolastu.

Beste kezka batzuk errepide nagusiaren beste aldera bizi direnen gaineoak dira. Bidea gurutzatzeko pasabide bakarra dute; gainera, alde horretan ez dute espalorik semaforora edo autobus geltokira heltzeko.

Zoru pelbikoaren inguruko ikastaroa egingo dute, martxoan

MAÑARIA M.O.

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa egingo dute Mañarian, martxoko hainbat zapatutan zehar. Hain zuzen ere, martxoaren 5ean izango da lehenengo saioa, eta 12an eta 19an ere elkartuko dira partaideak.

Liburutegi zaharra ipini dute elkargune lez, eta 11:00etatik 12:30era bitartean garatuko dute ikastaroa.

Zoru pelbikoak aldaketak jasaten ditu urteetan zehar. Batez ere, haurdunaldiaren eraginekin lotzen da, baina emakume eta gizonen bestelako arrazoiengatik ere eduki ditzakete aldaketak. Mañariko saioen bidez, gorputzeko eremu hori indartuko dute.

Pub Quiz Elorriora helduko da, lehenengoz

Ondo pasatzea eta ingelesa praktikatzeko da helburua

ELORRIO M.O.

Martxoaren 11n Pub Quiz helduko da Elorriora, lehenengoz. Trivial estiloko jolasaren bidez, ondo pasatzea eta ingelesa praktikatzeko da helburua. Iaz Duran-goko Plateruenean hasi ziren

egiten, arrakasta handiz, eta partaideetako batzuk elorriarrak direnez, lantzean behin herrian egitea erabaki dute. Ateneoan batuko dira, 21:30ean, bost lagunek taldetan, eta bakoitzak 50 zentimo ipiniko ditu.



Platerueneko saioetan 100 lagunetik gora batu izan dira sarri.

Sarraila elektronikoak ipini dituzte udal eraikinetan

ZALDIBAR I.E.

Eraikin publikoak hobeto kudeatzeko helburuz aldatu ditu Zaldibarko Udalak eraikin publikoen sarrailak. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, "baimendutako pertsonen, baimendutako ordu eta egunetan" zabaldu ahalko dituzte, aldaketa horregaz, udal eraikinak.

Erabiltzaile asko dituzte eraikin publikoak, eta Arantza Baigorri alkateak esan duenez, giltzen kopia asko ibili izan dira urteetan eskuz esku, eta beti ez da eraikinen erabilera egokia egin izan: "Batuetan, arazoak sortu izan dira, jendea kontrolik barik sartu izan delako eraikinetan, ordutegiz kanpo, esaterako".

Zezipala sagardoa botilaratu, eta ia guztia banatu dute dagoeneko

GARAI M.O.

Durungaldeko lagun koadrila batek Zezipala sagardoa ekoizten du Garaiko Etxeita base-rrian, auzolanean eta antzinako era naturalean. Aurten, 1.500 litro ekoizti dituzte, eta urtarrik amaieran botilaratu zuten. Bada, dagoeneko banatu dituzte ia botila guztiak lagun eta ezagunen artean.

Baina, sagardo berezi hori dastatzeko irrika dutenek, bihar edukiko dute aukera, Garain. Izan ere, Trumoitte kultur elkarteak Sagardo Eguna antolatu du; 18:00etatik aurrera ospatuko da, pilotalekuan. Zezipalaz aparte, garaitarrek lagunduta sortzen den Okiltxiki sagardoa ere edan ahalko da.

OTSAILEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Jasone Osororen "12etan bermuta" liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" CDa.

hitz

UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.
ESKUILA ELEKTRIKOA
Hortzetako eskuila elektrikoa PC800 sensitive ORAL-B.

Unamunzaga Hartzak

EGUEN SALTAN.
EGUEN SALTAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.

eguen saltan

GAU-TU.
BURKO BISCOELASTIKOA
Burko biskoelastikoa 150 zm-ko oherako.

gau-tu

FORUM SPORT.
PULTSOMETROA
Polar FT1 modelo eta uhala. Iragazgaitza.

forum sport

ABANTAILAK

- > Deskontuak Durungaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durungaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

Autzaganeko tunela amaitzeko lanak berriz hasi dituzte, gaur

Autzaganeko errepideko eta tuneleko lanak geldirik egon dira zazpi hilean



Joan zen barikuan Autzaganeko tuneletara egindako bisitako irudia.

ZORNOTZA J.Derteano
Zazpi hilean geldirik egon os-tean, Autzaganeko errepidea zein tunelak amaitzeko lanei gaur ekin diete berriro. Lanak aurrera eramateko ardura duten enpresek 25 hileko epealdia izango dute dena amaitzeko.

Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuak obra amaitzeko falta diren lanen gaineko azalpenak eskaini zituen joan zen asteen, tuneletara egindako bisitan. Diputatuak gogorarazi zuen Autzaganeko errepideko kanpoko obra ia amaituta dagoela, eta tuneletan 62 eta 63 metro gelditzen direla hondeatze-

ko. Tunelek, guztira, 693 metro eta 695 metro izango dituzte.

Horrez gainera, akuiferoaren inguruko xehatze eta kontrabobeda sekzioko indusketak ere falta dira egiteko. Lan horiekin batera, tunelaren erdia estali behar dute, eta espalo eta instalazio guztiak egin behar dituzte.

Lanak Excavaciones Vda. De Sainz, Lurpeko Lan Bereziak, S.A. eta Excavaciones Cantábricas, S.A. enpresek osatutako UTEari —enpresen aldi baterako bateratzea— esleitu dizkiote 20.343.349 eurotan (BEZ barik). Kopuru hori lizitazio aurrekontuan jasotakoa —21.898.504 eu-

ro— baino %7 baxuagoa da.

Obrak amaitu artean, bide-segurtasuna hobetzeko jarduerak egingo dituzte, eta horretarako proiektua lizitaziora ateratu du Aldundiak. Esaterako, Gorozikako bihurtzeetako peralteak edo goraguneak aldatuko dituzte, eta trafiko seinale bertikalak eta horizontalak ere gehitzeko asmoa dute.

Autzaganeko lanak iazko uztailetik geldirik zeuden. Bizkai-ko Foru Aldundiak lanen ardurazuen UTEarekin lotzen zuen kontratua hautsi zuen, besteak beste, ingurumen eskakizunek eragindako gainkostuen kargu ez egitearren.

CESParen esku, beste urtebetez, Traña-Matienako kaleen garbiketa

ABADIÑO Itsaso Esteban
Gobernu taldeko Abadiño-ko Independentiek eta EAJ-ko zinegotziek bozkatu zuten Traña-Matienako kale garbiketa kontratua beste urtebetez luzatzearen alde. Gaia eztaba-dagai izan zuten martitzeneko osoko bilkuran, eta gobernu taldeak udal zerbitzuak azpikontratatzeko daukan joera kritikatu, eta kontrako bozka eman zuen Bilduk.

Lau urterako lotu zuten, hasiera batean, Traña-Matienako kale garbiketaren zerbitzua CESPAn enpresagaz, eta iaz, urtebeterako luzapena eman zioten. Martxoan da urtebete-ko luzapen horren epemuga, baina alkateak esan zuenez, “zerbitzuaren lehiaketa publikoaren deialdia egin ahal izateko, baldintza orria ezin izango dugu martxorako prest eduki, eta horregatik proposatzen dugu urtebeteko luzapen hori”.

Traña-Matienakoa ezezik, herri osoaren garbiketa enpresa bati esleitzeko aukera aztertzen dabilzala aurreratu zuen Jose Luis Navarro alkateak, martitzeneko osoko bilkuran. Kale garbiketa zerbitzuaren esleipena egiteko baldintza orria zehaztuko dute datozen hileetan, eta proposamen hori mahaigaineratuko du gobernu taldeak.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSEE



Emakumearen gorputza eta gerrak

Pistola, fusil, tanke, grana-da eta bonbekin batera, emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria da mundu osoan barrena gerretan eta gatazketan gehien erabiltzen den arma. Sexu-indarkeria izan da eta da etsaia mendean hartzeko eta kontrolatzeko historikoki erabili den gerrako arma.

Azken adibideetako bat Jugoslavia zenaren lurraldean izandako gatazka dugu; bertan, Kroazian eta Bosnia Herze-govinan, emakumeen 60.000 bortxaketa salatu ziren.

Joan den otsailaren 1ean, Sepur Zarcoren epaiketa hasi zen, prozesu historiko bat, historian lehenbizikoz aldiz leporatu baitzaie gerrako krimi-nalei sexu-indarkeria gerrako arma gisa erabiltzea. Izan ere, 1982an, Guatemalan, Gerra Zibil betean, 30.000 emakume bortxatu zituzten, haietako asko emakume indigenak, eta %98 kasutan Estatuko agenteak izan ziren bortxatzaileak.

Gaur egun, Europa-bidaia-tzen diren emakume errefuxia-tuena da kasurik mingarrie-netako bat. Batzuetan, errefuxiatuek berek egiten dizkiete sexu-abusuak, ziurrena taldearen barruan boterea irabazteko estrategia gisa. Eta, beste batzuetan, harrera-herrialdeko bortxatzaileek egiten dizkiete, etorkinak makurrarazteko eta adorea kentzeko.

Erakunde askok eskatzen dute ibilbide legezkoak eta seguruak prestatzeko, trafikatzaileak eta salerosketan aritzen diren mafiak saiheste-ko; eta, azken osoko bilkuran, Durangoko Udalak bat egin du erakunde horiekin, eta ibilbide seguruak eskatu ditu Europa-bidaia-tzen diren errefuxia-tuentzat.

DURANGALDEA ASTEON

Errefuxiatuen aldeko Bilboko manifestaziora

ZORNOTZA > ‘Ongi etorri Errefuxiatuak’ plataformak biharko antolatu dituen mobilizazioetan parte hartzera deitu ditu Zornotzako HiriEkimenak herritar-
rak. Euren herrialdeetatik ihesean datozen errefuxiatuen asilo eskubidea aldarrikatuko dute, 12:00etan, Bilboko Arriaga plazatik aterako den manifestazioan.

Matxura batek eragin zuen ur-mozketa

DURANGO > Urik barik egon ziren, martitzenean, ia Durango osoan. Udalak azaldu duenez, herrira ur edangarri gehiena garraiatzen duen hodian, Garaizarko de-posituan, gertatu zen matxura. Matxura zehazki non zegoen topatzea kostatu egin zitzaizen teknikariei, eta 23:30 arte ibili ziren konponketa lanetan.

Sagardotegira joateko plana, Berbalagunekin

DURANGALDEA > Martxoaren 5ean ipini dute Durangaldeko Berbalagunek hitzordua: Durangotik abiatuko dira, 11:00etan, Zumaian geldialdixoa egingo dute, eta eguerdian Usurbilgo Urdaira sagardotegira joango dira, bazkaldu eta txotx egi-tera. Martxoaren 2ra arte eman daikete izena, 639 400 786 telefonora deituta.

IRITZIA

Gutuna

Azaroan, mugimendu feministako gure kidearen aurka jarritako salaketa artxibatu egin dutela jakin dugu duela zenbait egun.

Pozik gaude, baina ez dugu ospakizunik egingo. Ez dugu zer os-patu. Ebazpen hau onartuko genukeen bakararra delako. Amaiera hau onartu zitekeen bakararra delako.

Hori bai, amaierarik ez duena gure lana da, feministon lana. Erasotzaileak seinalatzen eta emakumeentzat bizitza duinak aldarrikatzen jarraituko dugu, tinko.

Zentzu honetan, salaketaren harira egindako kanpainan parte hartu zenutenon konpromisoa eta laguntza eskertu nahi dugu. Mu-gimendu feministaren kontrako eraso honek pizturiko erantzun sozialak, horrek bai, su artifizialen sesio bat merezi duela. Morea,

lila eta alberjina kolorekoa!

Eskerrik asko, mugimendu feminista kriminalizatzeko ahalegin maltzur honi, zutik jarritz, erantzun diozuen guztioi. Bihotz-bi-hotzez!

Kaleak morez pintatzen topo egingo dugu!
Gora aliantza feministak!
Gora borroka feminista!

Ainhua Urrengoetxea Gezala eta Miren Sarrionandia Derteano, Durangoko Plataforma Feministaren izenez

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta •
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia-
kide baten izenean sinatuta eta
ANBOToren irizpideen arabera
zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako
testuak ezingo du 1.500 karaktere
baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTok ez du bere gain hartzen
kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi
artikuluetan edo gutunetan
adierazitakoan eta emandako iritzien
erantzukizunik.

> Berbaz

Miriam Peña (Durango, 1983) | Arte Ederretan lizentziatua eta Magisteritza eskolan irakaslea



“Ipuinak, txikitatik, irudiekiko sentsibilizazioa sortzeko tresna dira”

Ipuinen formatuei zein koloreei buruz hausnartzeko ikastaroa zuzentzen du Miriam Peñak Durangon

> BERBAZ Aitziber Basauri
Zer izkutatzen dute ipuinek? Galdera horri erantzuten saiatzen da Miriam Peña, hilean behin, Durangoko liburutegian gidatzen duen ikastaroan. Peña lizentziatua da Arte Ederretan, eta irakaslea da Magisteritza eskolan.

Zer ezkutatzen dute ipuinek? Ipuinak eduki aldetik kontsumitzen ditugu; testuaren arabera, oro har. Egia da irudiak arreta deitu diezagukela. Gerta daiteke irudia atsegina ez izatea, eta horregatik ipuina ez hartzea. Hala ere, helduok, ipuin horien kontsumitzaileok, ez dakit zenbaterako arreta jartzen diogun irudiak ezkutatu dezakeen mezuari. Estetikatik haratago; politagoa edo itsusiagoa izatetik haratago. Badago beste kode bat, beste ezagutza bat, eta horretaz hausnartu gura dugu. Aukeratu liteke ipuin bat ideia horretatik abiatuta; irudiak irakurri egin daitezke.

Irudiak albo batera uzten ditugu? Ez diegu arretarik jartzen? Denetarik dago. Hala ere, oso zabaldua dago egia ez den siniste bat: irudiak testuari lagundu egiten diola. Testua dekoratu

egiten duela. Hori ez da beti horrela: badaude lehenengo irudia sortu eta gero testua jarri zaien ipuinak; testurik gabekoak ere bai. Horiei zenbateko arreta jartzen diegu? Jasotako hezkuntzak ere badu horretan eragina. Horretara bideratu gaituzte.

Ikus-alfabetizazioa eta alfabetizazio arrunta ez dira maila berean landu? Ipuina eskura dugun erreminta dela uste dut (etxean, ikasgela, liburutegietan...). Denontzako ipuinak daude, eta, ipuin horiek nola hurbildu hala erantzungo dugu: mundu horretara hurbiltzea erabakiko dute batzuek... Sineskera bat dago ipuinak eta irudiak bost urtera artekoentzat direla; gero, irakurtzen hasten gara. Baina, hori ez da egia osoa. Paradoxa benetan, kontuan hartzen badugu irudiaren gizartean bizi garela. Enpresa erraldoi bat da irudiarena, eta hor mugitzen gara gu. Baina, paraleloki, gizarte hau ez dago irudietan hezita: prentsa artikulua bat irakurri eta ulertzeko gai gara; poesia irakurri eta horren inguruan hausnartzeko gai gara, baina, gai al gara irudi bat interpretatzeko? Ipuinak, txikitatik, irudiekiko sentsibi-

lizazio bat sortzeko tresna dira. Irudiaren munduan hezteko tresna. Etorkizunean pertsona heldu lez munduan dugun guztia kudeatzeko (koloreak, tipografiak, eskalak, formatuak) aurreneko urratsa izan daiteke ipuina. Irudiak mezu bat zabalitzen du.

Hilean behin saio bat egiten duzue. Zein da helburua? Oso era umilean, kasualitatez sortutako ikastaroa da. Materiala nuen batuta, eta inork interesa izanez gero, saioaren bat egiteko aukera bota nuen. Ipuinak ikusi eta komentatu egiten ditugu, irakurle klub bat lakoa da. Ipuinen formatuari, koloreei buruz hausnartzea da helburua. Egon daitezkeen formatu desberdinak ikusi eta aztertzea. Merkatuan aukera zabala dago, bilaketa nahi hori behar da.

Ipuin klasikoetara jotzen dugu? Badago Txanogorritxoren ipuin bat zulo batzuk dituen, eta linternaren batekin lurrean proiektatzen dena. Aupa klasikoak ere! Ez da modernitate kontua. Txanogorritxoren ipuin oso onak eta oso txarrak daude. Filmekin ere berdin gertatzen da, bertsio oso onak eta txarrak daude.

“**Ipuinek, album ilustratuek bere indarra hartu dutelakoan nago**”

“**Denontzako ipuinak daude: nola hurbildu, hala erantzungo dugu**”

Ipuinetan, irudiak gero eta indar gehiago hartu du? Digitalizazioa dela-eta, ipuinek bere lekua aurkitu dutela uste dut: badaude ipuin batzuk, adibidez, *Migrar*, ezin direnak digitalizatu. Esperientzia bat dira eurak bakarrik; objektu bihurtu dira. Argitaletxeak euskarri fisiko horrek merkatuan baduela bere lekua konturatu direla uste dut. Esperientzia hori ezin da ordenagailuan bizi. Nobelen bizitza mugatuagoa delakoan nago. Orriak pasatzea gura dutenak egon badauden arren, gero eta gehiagok deskargatzen dituzte liburuak, e-bookean irakurtze-

ko. Ipuinekin ez da horrelakorik gertatu oraindik. Zerbait egin da, baina oso gutxi.

Zergatik?

Gizarteak harritu egiten gaitu batzuetan! Ez dut uste gizarteak hori behar duenik. Badago lekua merkatu editorial horretarako, eta ipuinek, album ilustratuek —testuak eta irudiak maila edo presentzia bera dute—, bere indarra hartu dutelakoan nago.

Irudiak irakurtzeko ohiturarik ez dugu?

Irakurri arren, ez gaita konturatzeko uste dut. Kontzienteago izan behar genuke kontsumitzen ari garenez, eta duen eraginaz. Adibidez, Frozenek du orain arrakasta. Disney Faktoriaren indarra handia da benetan, eta kontsumitu egiten dugu. Hala ere, badakigu zer kontsumitzen ari garen? Badugu tresnarik beste zerbait kontsumitzeko? Literaturan badaude alternatibak, baina, ez dut uste horretarako interesik dagoenik, gurasoen partetik baino, merkatuaren partetik.

Irakaskuntzan tresna baliogarriak dira irudiak, formak eta koloreak?

Bai. Hala ere, Arte Plastikoa-ri emandako lekua gero eta txikiagoa da. Ez dago horren aldeko apustu seriorik. Ez dute sinesten pertsona baten garapenerako beharrezkoa denik. Magisteritzan leku gutxi ematen zaio irudiari, eta ondorioz, irakasle izango diren horiek formazio eskasa izango dute arlo horretan.

Heldu eta umeek irudiaren pertzepzio desberdinak ditugu?

Bai! Helduak guztiz kutsatuta gaude. Oso erabakita dugu zer den polita, zer zatarra... Zentzu horretan, garbiak dira umeak, benetakoak. Umeek uneoro harritu ahal zaituzte.

Elkar komunikatzeko irudi edo objektuen forma eta konposaketaren analisia egitea garrantzitsua da orduan?

Batzuek diote inoiz ez garela gai izango umeak ulertzeko. Umeak bere garapen pertsonala izaten utzi behar zaiola diote, gu gidari edo laguntzaile izatera mugatuz. Baina, bizi dugun hezkuntza sistemak ez du hori ahalbidetzen. Gertatzen ari denaz jabetzea da garrantzitsua. Formazioa beti dago ondo, gero ikusiko dugu esku hartu edo ez, ditugun tresnak erabili edo ez.

Zortzi mila musikazale batuko ditu, bihar, 40 Minutu Rock jaialdiak

Zuzeneko musikak hartuko du Durangoko Landakogunea, bihar, 10:30ean hasi eta 02:30 arte

> MUSIKA Itsaso Esteban

Jaialdiaren antolatzaileek aurrreratu dutenez, iaz ez bezala, aurtun, ez da egunean bertan 40 Minutu Rock jaialdirako sarrerak eskuratzeko aukerarik izango. Iaz baino entzule gehiago espero dituzte jaialdiaren bigarren edizio honetan, aurrez, zortzi mila sarrera salduta.

Euskal Herriko pop rock eszenaren erakusle diren hamabi talde ariko dira, bihar, Landakogunean

Musikazale esparru zabal baten gustua asetzeko moduko kartela osatu dute, aurtun ere, 40 Minutu Rock jaialdiaren antolatzaileek. Euskal Herriko pop rock eszenaren erakusle diren hamabi talde arituko dira, bihar, 10:30etatik 02:30era, Landakogunean: Ken Zazpi, Sociedad Alkoholika, KOP, ETS, Txapelpunk, Hesian, Etsaiak, Vendetta, Pixontxis, Ze esatek! McOnak eta Garilak 26.

Pixontxis elorriarra izango da Durangoko musika jaialdian parte hartuko duen Durangaldeko musika talde bakarra.

Ilusioz prestaturikoa

Aurretik entzule askoren aurrean jardun izan diren arren, Durangoko 40 Minutu Rock jaialdiaren tamainako jaialdi batean aritu bakoak dira Eloorrioko Pixontxis taldekoak.

Biharko kontzertuari begira, “8.000 sarrera saldu diren jaialdi batean jotzeak, aldi berean ilusioa eta beldurra ere” sortzen diela diote Eloorrioko musikariek. Ekoiztetxe baten babesik barik horrelako oholtza batean jotzera ailegatu izanaz harro daude Pixontxis-ekoak.

Zuzenean lehenengoz joko dituzten sei kanta ere prest dauzkate, biharko, Eloorrioko Pixontxis taldekoak

Azaldu dute asteak daramatzatela biharko kontzertua pres-



13:30ean hasiko da Pixontxis Eloorrioko taldearen kontzertua.

tatzen, eta emanaldi “konpletoa” eskainiko dutela: 2010eko maketako kantak, 2014ko *Gogoz astinduz* lehenengo diskokoak,

eta bertsio bat ezezik, zuzenean lehenengoz joko dituzten beste sei kanta ere prest dituzte 40 Minutu Rock-erako. Aurrreratu

dute, kanta berri horiekin eta eskuartearen dituzten beste batzuekin disko berria grabatzeko asmoa dutela.

> ERAKUSKETA Itsaso Esteban

Durangaldeko landagunetako irudiak dira Javier Gorosarririk Durangoko Arte eta Historia Museoan ipini duen erakusketa-ko koadroen gaiak. Eskualdeko baserriak dira *Durangaldeko paisaiak* bildumaren protagonistak, Gorosarririk azken hamarkadetan egindako margolanak. Atxondo, Eloorri, Abadiño, Berriz, Izurtza, Durango edo Mañariko auzoetako paisaiak agertzen dituzten margolanak ezezik —olioagaz egindakoak—, grabatu lanak ere badaude Durangoko erakusketan.

Otsailaren 17an zabaldu zuten erakusketa, eta martxoaren 6ra arte egongo da Durangoko Museoan ikusgai.

Martitzenetik barikura, 11:00etatik 13:30era, eta 16:30etik 20:00etara; zapatuetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara dago erakusketa zabalik.

Durangoko Museoan daude Javier Gorosarriren ‘Durangaldeko paisaiak’

Martxoaren 6ra arte egongo dira Gorosarriren (Durango, 1929) koadroak Museoan

Autodidakta da 88 urteko Javier Gorosarri, eta paisaien argazkietatik abiatuz, bere koadroak sortzen jarraitzen du,

Berrizko etxeko ganbaran. Azaldu du Mañariko irudi bat dara-

bilela, besteak beste, egunotan eskuartearen. Durangaldeko auzoetan zehar ibiltzea, eta berta-



Eskualdeko baserriak ageri dira erakusketako koadrorik gehienetan.

tik bertara, aire zabalean margotzearen falta sumatzen duela dio margolariak: “Bestelakoa da hor zehar ibili eta kanpoan margotu ahal izatea; oso gustura ibili izan naiz lan horretan”.

Artea eta Ofizioak ikasi zuen Gorosarririk Maristetan, eta oso gaztetatik du margogintzarako zaletasuna. Kontatu du, esaterako, 1948an egindako koadro bat daukala ganbaran, Durangoko Tabirako elizarena, hain zuzen.

Tabiran ikasitakoa

Oso gogoan du Javier Gorosarririk Durangoko Tabirako solasaldietan ikasi zuena. Ahaztu ezinak ditu Losa, Capelastegui, Legorburu, eta beste hainbat lagun artista, zein gaztaroan Durangon ezagutu zuen mugimendu artistikotik jasotakoa.

Elias Garralda margolaria- ren jarraitzaile eta laguna da Gorosarri, eta lagun nafarrak bezala, paisajistatzat definitzen du bere burua.

Zirku garaikideko 'Spazi...O' lana areto barrurako bertsioan, bihar

Durangoko San Agustinen eskainiko du Dikothomia taldeak emanaldi hori



Barbara Govan eta Endika Salazar dira obraren sortzaileak eta dantzariak.

> DANTZA Itsaso Esteban Kultura herriko gune desberdinetan eskaintzeko helburuagaz, Durangoko San Agustin kulturguneak antolatzen duen Uda Klean Bizi programazioaren barruan estreinatu zuen Dikothomia taldeak *Spazi...O*

ikuskizuna, uztailan. Durangoko Musika eskolako lorategian eskaini zuten zirku garaikideko emanaldia udan, eta, San Agustin kulturgune barruan arituko dira, bihar, 20:00etatik aurrera.

Abadiñon bizi diren Barbara Govan italiarra eta Endika

Salazar bilbotarra dira testurik bako *Spazi...O* ikuskizunaren sortzaileak, eta beraiek dira ikuskizunean akrobaziak eta malabareak egiten dituzten artista biak.

Uda Klean Bizi programazioaren barruan eskaini zuten ikuskizuna, uztailan, Durangon

Bizitza errealean ere bikoitea dira Govan eta Salazar, eta euren bizipen eta emozioak oinarri hartuta, bikote baten azaletik dihardute ikuskizun honetan. Bizitza bikotekideagaz partekatu arren, norbanakoak bere banakotasuna mantentzeko duen beharraz dihardute ikuskizunean, elkarrengana hurreratu eta bata besteagandik urruntzen dituen dantzan.

Kimuak 2015 lehiaketan hautaturiko zazpi filmak, Zornotzan

> ZINEMA I.E.

Kimuak film laburren lehiaketan 2015ean hautaturiko zazpi filmak eskainiko dituzte, gaur, 21:00etan, Zornotza Aretoan. EAEko zinemagileen *5 segundos*, *A revenge story*, *Duellum*, *Foxes*, *I said I would never talk about politics*, *Lost village* eta *Luz a la deriva* izenburuko film laburrak izango dira ikusgai.

Film dokumentala da Inigo Salaberria donostiarraren *Luz a la deriva*, Islandian kokaturiko istorioa; animaziozko pelikula da, aldiz, *I said I would never talk about politics*; eta askotariko gaietara heltzen dieten fikziozko pelikulak dira, gaur, Zornotzan emango dituzten beste bostak ere: Tucker Dávila, David Gonzalez eta Lander Camarero bilbotarrek zuzendurikoak dira *Duellum*, *5 segundos* eta *A revenge story*, George Todria georgiarraren *Lost Village*, eta Mikel Gurrea donostiarraren *Foxes*.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



Ilusioa

Ilustrazioaren garaian susper-tu zitzaigun ilusioa. Pizgarria eta positibotasuna lotzen dizkiogu ideia horri garai hartatik. Ordukoak pentsatzen hasi ziren arrazoimenaren bidez ezjakintasun, superstizio eta gehiegikeriei aurre egiteko tresna zutela. Munduaren ikuskera aldaketa gertatu zen: Erdi Aroko iluntasunetik irteten eta argien mendeko argitasunerako kosmogonia-bidaia zen. Ilusioz ikusten zuten garapena. Mundu hobea eraikitzeko gai ikusten zuten euren gizartea. Aurrerakuntzan sinesten zuten. Besteak beste, kulturaren aurrerakuntzan. Eta horrek zoriontasuna ekarriko ziela pentsatzen zuten. Ikuskera "ilusionatu" horrek sekulako garapena eragin zuen arte guztietan eta pentsamenduan.

Leopoldo Zugaza ere ilusioaz jardun zitzaigun duela aste gutxi batzuk astekari honexetan irakurri genion elkarriketaren. Duela 50 urte geneukan gauzarik inportanteenetakoa etorkizunerako ilusioa zela gogoratzen zuen. Ilusio hori lausotu egin omen da, eta ondorioz, jakin-min falta dela egun kulturaren gaitz handiena baloratzen du.

Postmodernitatearen deskribapen bat izan daiteke Zugazarena. Baina, modernitatea gainditutzat ematen dugu? Ala ilusio ilustratuak oraindik fruituak eman ditzake? Hori postmodernitatearen beste deskribapen bat da.

Ez dakit ongizateak ez ote digun ekarri norbere eta gizartearen garapenean genuen ilusioaren galera. Asisko Urmenetak, Fermin Etxegoienekegin dion elkarriketa ederrean, oparitu digu benetako ikuskera aldaketa: ilusioa ilusoena da.

Durungaldeak irabazi du BBK sariketako bigarren kanporaketa

Finaulurreko lehenengo saioan kantatuko du Durungaldeko seikoteak



Durangon burutu zuten, martitzenean, bertso saioa.

> BERTSOLARITZA I.E.

Durungaldeko bertsolari seikoteak irabazi zuen, martitzenean, Durangoko Institutuan jokatu zuten Bertsolari Gazteen XXIV. BBK sariketaren bigarren kanporaketa. Durungaldeko seikoteak 439 puntu t'erdia lortu zituen, eta 386 puntu t'erdia Enkarterri eta Ezkerraldekoak. Beste taldeak baino 53 puntu gehiago batuta, beraz, Durungaldeko taldea da Bertsolari Gazteen sariketako finalurrekoetara igarodena. Martxoaren 2an izango dute Durungaldeko bertsolariak

hurrengo hitzordua: Busturialdeko taldeagaz lehiatuko dira, lehenengo finalurrekoan.

Durangoko Institutuko martitzeneko saioaren ostean, txapelketatik kanpo geratu zen, aldiz, Enkarterri eta Ezkerraldeko bertsolarien taldea.

Durungaldeko seikoteak 439 puntu t'erdia lortu zituen, eta 386 t'erdia Enkarterri eta Ezkerraldeko bertsolariak

Bittor Altube, Gorka Pagonabarraga eta Iruri Altzerreka bertsolariak dira 18 urte artekoen sailean Durungaldea ordezkatu dutenak, eta Txaber Altube, Peio Azkarate eta Aitor Bizkarra 19 eta 24 urte artekoen taldean kantatu dutenak.

Spazi...O
Dikothomia Cia

Otsailaren 27an
20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEAK
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK	OTSAILAK 26 21:30etan DURANG(H)OTS JAM SESSION KONTZERTUA	OTSAILAK 27 2:00etan DJ BULL	OTSAILAK 27 13:00etan KANTALAGUN KANTALDIA
--	--	---	---

· Etorri ikustera ·



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

lurretan, Durangon eta Elorrion aukera oso onak!



Durangoko herrigunean



*Energia-eraginkortasun
handiko etxebizitzak*



Hiriko txaletak



Oiz mendira begiratokiak



Leku zabalak

www.zarateyelexpe.com

Bixente Kapanaga, 19

lurreta - Bizkaia

946 816 673

f Zarate eta Elexpe Eragileak SL.

Irati Eguren Arruti | Ilustratzailea | Durango, 1981

“Sormen prozesu berriei ekiteko baliatu dut Berrizko Kultur Etxeko erakusketa”

Otsailaren 28ra arte egongo da Irati Egurenen ‘Dena batuz’ ilustrazio erakusketa, Berrizko Kultur Etxean ikusgai



Italo Calvinoren ‘Hiri ikusezinak’ liburua oinarri hartuta sortu ditu Irati Egurenen ‘Dena batuz’ erakusketako lanak.

► **ARTEA** Itsaso Esteban
‘Dena batuz’ izena du erakusketak. Nondik dator izen hori?

Berrizko Kultur Etxerako zerbait berria egiteko gogoia neukan. Sormen prozesu berriei ekiteko baliatu dut Berrizko erakusketa. Landu gura nituen gai batzuk neuzkan buruan, eta horiek batzea gura nuen. Hortik dator izenburua.

Berrizko erakusketarako sortutakoak dira lanak, beraz. Horrela da, bai. Erakusketaren ibilbidea eskuinetik ezkerre

eginez gero, bere begiradatik ipuin bat osatzea proposatzen diot ikusleari.

Etxearen irudia agertzen da erakusketako lan gehienetan. Zuri dagoen orriari beldurra kentzeko aitzakia bat behar izaten dut sormen prozesu guztietan. Momentuko nire obsesioak zeintzuk izan diren aztertu, eta hortik egiten dut tira. Teknikoki, arkatza eta urre koloreko tenperak izan dira, kasu honetan, nire obsesioak. Elementu horiekin, ezinezko herriak sortu

ditut. Italo Calvinoren *Hiri ikusezinak* liburua oinarri hartuta joan naiz ilustrazioak sortzen.

Zenbat denborako lana izan da? Bi hilabete inguru egon naiz buru-belarri lan honetan. Udatik nekien otsailean ipiniko nuela erakusketa Berrizen, eta orduetik ibili naiz buruari bueltaka.

Durangoko Arteka liburu-dendan erakutsi zenuen orain hila-bete batzuk zure lana. Bai, Arte Ederretan *Investigación y creación en arte* master

amaierarako egin nuen tesia zegoen erakusketa horren oinarrian. *Herrian urperatzea* liburua izan zen lan horren emaitzetako bat, eta erakusketa bestea.

Urpekaritza saio bat proposatzen duzu liburu horretan.

Kasu horretan ere, nire bizi esperientziatik jardun nintzen: arkitektura mundutik nator, eta ikuspuntu horretatik aztertua neukan Durangoko Alde Zaharra. Lan honetan, hortik aldendu, eta beste ikuspegi batetik heldu gura nion gaiari. Filipinetan bizitzen egon nintzen, urpekaritza irakasten, eta esperientzia hark ere badu isla lan horretan: Durangoko Alde Zaharra Filipinetako itsasoan urperatu, eta irakurleari urpekaritza saio bat proposatzen nion. Irudi eta testu nahiko surrealistikak sortu ziren.

Webgunearen eta sare sozialen bitartez zabaltzen duzu zure lana, eta jarraitzaile asko duzu.

Bai, egia da erantzun ona jasotzen dudala. Filipinetan bizi nintzela, urpekaritzan ikusten nuen asko motibatzen ninduen, eta asko marrazten nuen. Irla txiki batean nengoen, eta han bururatu zitzaidan orrialde bat zabaltzea. Banekien ilustrazioa zela barruan neukan grina, eta oso zaila izan arren, horretara dedikatzea gura nuen.

Sortzeko baldintza hobeak zenezkan han?

Bai, izan ere, gustura sortzeko, burbuila batean sartzea behar dut, gainontzeko gauzetan geldialdia egitea. Eta, hemen bizi garen erritmoan, zaila da hori. Nik ez daukat gaitasunik bi ordutaz sortzen egon, amaitu barik beste zerbaitetan hasi, eta ahal denean eta ahal den moduan, berriro hartzeko sorkuntza lana.

Marrazketa esperimentaleko saioak ere ematen dituzu.

Bai, eta asko gozatzen dut: niretzat ere erronka bat da. Filipinetatik bueltatu nintzenetik, hainbat tailer jaso ditut, eta horietan ikasitakoa partekatzen dut saio horietan.

Esperimentatuz sortzen duzu?

Bai, oinarri esperimentala dute nire lanek ere: ezinezko perspektiba batetik, edo pentsatu bako konposizio batetik abiatzen ditut... Modu horretan jardutea gustatzen zait, prozesuan neuk ere sorpresa hartzen dudalako.

Zertan diharduzu orain?

Ilustrazio mundurako sarrera izeneko tailerra emango dut maiatzetik ekainera, Bilboko Foru Liburutegian, eta horixe prestatzen dihardut.

Idazleren batekin kolaboratu duzu sekula ipuin bat ilustratzeko? Gurako zenuke horrelako elkarlan bat abiatzea?

Ez dut sekula egin, baina asko gustatuko litzaidake. Erronka oso interesgarria litzateke. Oraingoz, Aldiri arkitektura aldizkarirako eta Gaztezulorako ilustrazioak egiten ditut.

Agur esan du lheskide musika talde elorriarrak

Sare sozialetan eman du taldeak erabakiaren berri



Eskerrak eman dizkiete urteotan lagundu dieten guztiei.

► **MUSIKA** I.E.

Otsailaren 18an sare sozialetan argitaratu zuen mezuaren bitartez eman zuen lheskide Elorrioko laukoteak taldea desgiteko erabakiaren berri. “Egunerokotasunak jartzen dizkigun hainbat zailtasun eta arrazoiren ondorioz, saminez diogu ez gaudela aurrera egiteko baldintza egokietan”, adierazi zuten taldekideek, idatzi horretan.

Bestalde, hainbeste urtean “lheskide familia” osatu duten guztiei eskerrak eman zizkieten mezu horren bidez. Taldearen diskoak kaleratu dituzten MusikHerria eta Mauka ekoiztetxeak ere aipatu zituzten eskertza horretan. Baita, “gure aldarria zabaltzeko aukera eman diguzuen gaztetxe, taberna, areto eta herri guztiak ere; eta zelan ez, entzule guztiak”.

Kurutziaga akademiako margolariak, Ezkurdin

► **PINTURA** I.E.

Durangoko Kurutziaga margo akademiako ikasle helduen margolanen erakusketa dago, otsailaren 19tik, Durangoko Ezkurdiko erakusketa aretoan. Asteburu honetakoa izango da erakusketa bisitatzeko azken aukera. Gaur, 18:00etatik 20:00etara egongo da erakusketa zabalik, eta eguerdiz eta arratsalde (12:00-14:00, 18:00-20:00) bihar eta etzi.

Durangoko margo akademia horretan azken urteetan ikasi duten 80 bat ikasleren lana da Ezkurdiko udal aretoko erakusketan bildutakoa: eskola horretan ikasten dituzten asko-

tariko tekniken, materialen eta gaien isla da bildumakoa. Erretratuak daude, Durangoko eta eskualdeko paisaien irudiak, bodegoiak, abstrakzio ukitua duten koadroak, eskulanak... Kurutziaga margo akademian ikasitako tekniken bitartez bertako ikasleek urteetan landutako askotariko margolanak dira erakusketakoak.

Kurutziaga margo akademian ikasi duten 80 bat ikasleren lana dago Ezkurdiko erakusketan

Gartzen Elejabarrieta | Txirrindulari ohia | Abadiño, 1996

“Ahal banu, eguneko 24 orduetan ibiliko nintzateke bizikletan”

Eroriko batean belauna mindu, errekupeatu ezin, eta txirrindularitza utzi behar izan du abadiñar gazteak



> TXIRRINDULARITZA J.D.

2014an, bere denboraldirik onena behar zuena amesgaizto bihurtu zitzaion Gartzen Elejabarrietari. Zornotzan junior mailako Udaberri saria irabazita, Bizkaiko Ligako lider zegoen, handik astebetera eroriko bat izan zuen arte. Harrezkero, belaunak ez dio bakerik eman, eta txirrindularitza utzi behar izan zuen. Orain, Beste Alde-La Tostadora gazteen taldean zuzendari dabil.

Zelan gogoratzen duzu erorikoa?

Duranguesak lasterketa bat antolatu zuen eskualdean. Goizean taldekako erlojupekoa izan genuen, eta birritan erori nintzen. Lehenengoan, taldeko denok erori ginen irristakor zegoen gune batean. Bigarrena azken metroetan izan zen; abiadura bizian gindoazen, eta taldekide batek albotik aurreratu ninduean, eskulekuan ukitu eta biok erori ginen.

Zeintzuk izan ziren ondorioak? Belaunean hartu nuen min, barruko aldean. Momentuan, ez nuen belauna sentitzen. Gerora, hobetu egin zitzaidan, eta kolpe

“*Euskal Herriko fisio eta biomekanikoak bisitatu nituen, baina ez zidaten askorik argitu*”

soila zela uste nuen, baina entrenamenduetan kargatu egiten zitzaidan, eta min ematen zidan.

Minak min, ez zenion korritzeari utzi.

Ez. Astebetean geratzea erabaki nuen, baina medikuarengana joan barik. Neure kabuz pentsatu nuen aste batean atsedean hartzea. Berritro entrenatzen hasi nintzenean mina bueltatu egin zen.

Zure ibilbideko sasoirik onenean zeunden, gainera.

Bai, junior mailan Zornotzako Udaberri saria irabazi nuen erori baino astebete lehenago, eta Bizkaiko ligan lider nindoa. Nire ibilbideko unerik onena zen, bai.

Zein unetan esan zenuen: “Hau amaitu da”.

Erori eta hilabete eta pikura ohartu nintzen ez zela kolpea bakarrik. Mina ez zen pasatzen, lasterketak utzi egin behar, entrenatu ere txarto... Ordubete entrenatu, eta etxera joan behar. Horrela ezin daiteke ibili.

Zer zioten osagileek?

Biomekaniko eta fisioterapeutengana joaten hasi nintzen. Baina, aditu bakoitzak gauza bat esaten zidan; batzuek tendinitisa zela, besteek bizikletako postura txar baten ondorioz kargatzen zitzaidalda belauna... Denei entzun, eta emandako irtenbideak probatu arren, emaitzarik ez. Horrela ibili nintzen denboraldi osoan: astebete lehiatzen, beste hilabete gelditu tendinitisa zela ziotenek gomendatuta, bueltatu eta mina, beste aditu batengana joan eta ez entrenatzeko, beste batengana joan eta normaltasunez entrenatzeko... Euskal Herri osoko fisio eta biomekanikoak bisitatu nituen, baina ez zidaten askorik argitu.

Denboraldia amaitu zenean, uztea erabaki zenuen.

Hurrengo denboraldian afizionatuetaarako saltoa eman behar nuen. Duranguesak jendeak

“*Gazteetan badaude serio dabilzanak, eta esperantzaz gaude; Barañano eta Garcia*”

animatu egiten ninduen. Txirrindularitzarako balio nuela, eta gutxienez, probatzeko esaten zidaten. Hasi nuen aurrendenboraldia, gimnasio eta guzti, baina bizikleta gainean bi-hiru astean, berritro kargatu zitzaidan belauna. Berritro hara eta hona joaten hasi nintzen. Aitak eta amak alde denetara laguntzen zidaten. Baina, azkenean ezin.

Bizikleta hain gazterik uztea erabaki zenuen unea gogorra egin zitzaizun?

Oraindino lasterketak ikustera joaten naizean, eta oso gogorra egiten zait. Edozelan ere, txirrindularitza munduan jarraitzen dut, nahiz eta ez lehiatu. Baina, bai, gertatu zaidanak amorrua ematen dit. Ahal banu, eguneko 24 orduetan ibiliko nintzateke bizikletan, aurrera eta atzera. Orain ere ibili ibiltzen

naiz mendiko bizikletagaz, baina egun batzuetan segidan ari banaiz, belauna kargatu egiten zait. Baina, bai, ibiltzen naiz.

Bizikleta zaletasun berantiarra izan zenuen, ezta?

Etxean betidanik jaso dut bizikletarako kultura, baina umetan pilotan jokatzeko nuen. Pilota futbolagatik utzi nuen, eta futbola txirrindularitzagatik.

Zornotzako Udaberri Saria izan zen zure garaipenik handiena. Zelan gogoratzen duzu?

Itzela izan zen. Muniketan lauk aurrera egin, eta ihesean zihoenak harrapatu genituen. Bigarren igoeran, erritmoa markatzen hasi nintzen, eta denak geratzen hasi ziren. Neuk ere ez nuen sinesten. Muniketatik Zornotzara arteko bidea bakarrik egin nuen. Horrela irabaztea handia izan zen, etxekoan aurrean, gainera.

Gaur egun, Beste Alde-La Tostadora gazte mailako taldean zabilta.

Bai, zuzendari lanetan arituko naiz Markel Arbulugaz batera. Txirrindulari ohia bera ere. Ilusioz gabilta.

Aurtengo denboraldian zer espero duzue?

Lehen urtekoen lana kilometroak pilatu eta hankak indartzea izango da. Bigarren urtekoena emaitzak ateratzen saiatzea. Badaude serio dabilzan batzuk, eta esperantzaz gaude. Peru Barañano durangarra eta Gontzal Garcia atxondarra, esaterako. Bizkaiko liga, Euskal Herriko Kopak, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Itzuliak lehiatuko ditugu, besteak beste. Belgikara ere joango gara lasterketa batzuk lehiatzera.

23 urtez azpiko Eiser-Inforlur taldeak —Gartzenen iazko taldea— zer eskaini dezake aurtengo denboraldian?

Azpiegitura indartsuagoak dituzte, eta ilusioz daude. Azkenean, beste batzuekin alderatuz, talde hau ez da gazterik onenak fitxatuz osatutako selekzioa. Duranguesaren egitura barruko gazteei aukera eskaintzen dien taldea da. Afizionatuetaarako saltoa eman behar denean hutsunea dago gaur egun, eta jende asko txirrindularitza utzi beharrean egoten da. Beraz, horrelako taldeak garrantzitsuak dira. Gazteei, behetik datozenei, ilusioa pizteko modua da eta aukera bat eskaintzen die.

Promesarik onenak batu dituzte Biharko Izarrak txapelketan

Mallabiko pilotalekua afizionatuetako partidurik onenen lekuko izango da



Astlehenean aurkeztu zuten aurtengo aldia, Mallabiko Trabakua Behekoa jabetxean. Paulino Oribe

> PILOTA J.Derteano

Mallabiko Biharko Izarrak pilota txapelketak atzo hasi zuen aurtengo bidea, eta ekaineko bigarren barikuko finalera arte, astero-astero, afizionatu mailako pilotaririk onenen arteko lehiak ikusteko aukera eskainiko du, Mallabiko pilotalekuan.

Binaka eta lau t'erdian joka-

tuko dute: 24 pilotari binaka, eta 8 kaiolan. Txapelketaren sisteman ez dago aldaketarik, eta urteroko antolaketa bitxi bezain erakargarriari eutsi diote: multzo bitan banatutako pilotariek —seina aurrelari eta atzelari bakoitzean—, ez dute bikote finkorik izango. Asterik astera txandatu egingo dira, multzo

bakoitzeko aurrelari bakoitzak atzelari denekin jokatu arte. Partidurik gehien irabazi duten aurrelari eta atzelariak sailkatuko dira finalerdietarako.

Aurten ere, txapelketan parte hartzeko eskari mordoa jaso dute, eta horien artean aukeratu behar izan dute Mallabia pilota elkarteke kideek. Ohi moduan,

gazteen aldeko apustua egin dute, eta pilotaririk gehienak 22 urtez azpikoak dira.

Unai Laso eta Joseba Sarasa nafarrak eta Iraitz Zubizarreta gipuzkoarra dira txapelketan parte hartuko duten pilotarietako batzuk. Hirurak ere nabarmentzen ari dira. Zubizarretak, esaterako, Zaldibarko Olazar pilota txapelketan lau t'erdiko txapela jantzi zuen, iazko gabon zaharretan. Durangaldeak ordezkari bakarra izango du: Iurretako pilota taldeagaz diharduen Gorka Otaduy berriztarra.

Txapelketako jardunaldirik gehienak ostegun iluntzeetan jokatu dituzte, eta baita asteburu banaka batzuetan ere.

Atzo jokatu zuten lehen jardunaldia Mallabian, eta datorren astean zehar bi jokatu dituzte. Eguenean, 21:15ean, Peña-Urizar eta E. Labaka-Sarasaren artekoa da lehen partidua, eta P. Labaka-Olaizola eta Larrañaga-Mariezkurrenaren artekoa bigarrena.

Martxoaren 5eko zapa-tuan, 17:00etan, Otaduyren txanda izango da. Zubizarretak eta biek Etxebarría eta Alduntzin izango dituzte aurkari. Ondoren, Errandonea-Erasun eta Ugalde-Mateo bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

ADITUAREN TXOKOA

UNAI ZAMALLOA

Saskibaloia



Denboraldi luzeari... amaiera ona?

Egia esan, denboraldia irailan hasita, luzea eta gogorra egiten da. Bai, eta alde bietatik egiten da luze.

Alde negatibotik begiratu, ez da ezer bide onetik joaten. Beti, norabide erratua izaten da, eta nahiz eta lan gogorra egin eta bide onera bueltatu, beti egongo da beste zulo bat, eta estutasunak inguratzen du dena. Hori gertatzen zaio Ametx Zornotzari. Denboraldia luze doa, eta hasierako helburuak urrutitu daude. Play off-etara sartzea da helburua, eta azken partiduan jasotako porrot gogorrak helburua zaildu egiten du.

Baina, alde positibo asko ditugu gure inguruan, eta hauek dira orain aztertuko ditugunak.

Tabirako Baqué nesken taldea lehenengo postuan dago, eta bere lanak oinarria sendotu egiten du, nahiz eta azkeneko partidua galdu, Bera Bera-ren kontra. Egiten ari diren denboraldia oso ona da, eta buru-belarri ari dira goian jarraitzeko, aurreko urtean bezala, LF-2-ra igotzeko play-offean sartu eta jokatzeko. Ia horrela jarraitzen duten! Mutilen taldea ere ondo bideratu da, eta, aurtengo denboraldian, egindako lanaren ondorioz, talde borrokalaria eta gogorra eratu du. Bide luzea daramate bi taldeek, eta amaiera ikusten hasi dira. Ia egindako lanak aurreko postuetan bukatzea dakarren!

Beraz, denok gogor animatu dagigun!

Birako kartela bozketa irekian aukeratu dute



> TXIRRINDULARITZA J.D.

Apirilaren 13tik 17ra egingo duten Emakumeen Birak badu aurtengo aldia iragartzeko kartela. Joan zen aste amaieran, sare sozialen bidez bi kartelen artean bozkatzeko aukera eskaini, eta bozketa emaitzak kontuan hartuta egin dute aukeraketa.

Era berean, joan zen astean, Birako informazio-liburuxkaren azalean joango den irudia ere jakinarazi zuten. Lehenengo aukera alde batera utzi zuten polemika guztiaren ostean, eta bigarren bat aukeratu dute.

Durango-Durango klasikoa Garaitik zehar

Ibilbidea moldatu dute ikusgarritasuna gehitzeko

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Juan Manuel Balierrén Oroi-menezko Durango-Durango emakumeen klasikoak hainbat nobedade izango ditu aurtengo aldiari. Alde batetik, data aldatu dute, eta apirilaren 12an izango da. Horrela, ohi moduan, Emakumeen Biraren (apirilaren 13tik 17ra) aurreko egunean egingo dute. Bestetik, lasterketa azkenengo kilometroak ere berriak izango dira. Aurten ez dute Muniketa igoko; horren

ordez, birritan igaroko dira Garai gainetik. Lehenengo igoera Garai herritik egingo dute, eta bigarrena San Juanetik. Azken igoera horretan, %17ra arteko maldak daude, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Helmuga, Durangoko Ezkurdin izango da.

Duranguesa txirrindulari elkarteke antolatzaileen esanetan, iaz junior mailako lasterketa batean probatu zuten ibilbidea hori, eta "oso balorazio ona" egin zuten.

momotx
taberna

Plateruen plaza, 12 DURANGO
Tel.: 946 811 006

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

08:00etatik 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



85 etxebizitza libre

%100a salduta



89 etxebizitza libre

ERROTARITXUENA DURANGO

SUKIA ERAIKUNTZA Durangeko auzo berria aurrakaitu. Harkaitzen du.

ESKERRA Bizilekua guztiak onaltuta, berritu den auzo berria paretizalea da.



88 babes ofizialeko etxebizitza

Jana hau ez da hain onargarria.
ANFAN 140RA T3FN auzo Durangon proiektu berria. Egunerabute egon nahi baduzu, kontatu zure lantokian eta informatuak maitatuko zaitugu.

946 46 20 41 
www.sukia.com

SUKIA zure etxea zurea
Estos es tu casa

Pablo Berasaluzek erretiratu egingo dela iragarri du, 18 urtez profesional izan ostean

Berriztarrak urriaren 1ean jokatu du azken partidua, Bilboko Bizkaia pilotalekuan



Pablo Berasaluzek Asegarce enpresagaz dihardu.

> PILOTA Joseba Derteano
Pablo Berasaluzek (Berriz, 1977) pilota profesionala uzteko asmoa duela iragarri du, asteon. Binakako txapelketako pilota aukeraketaren osteko prentsaurrekoa baliatu zuen erabakiaren berri emateko. Profesionaletan urte asko daramatzala eta egunetik egunera goian egotea gero eta gehiago kostatzen zaiola adierazi zuen berriztarrak. Berasaluzek urriaren 1ean jokatu du profesionaletako azken partidua. Aurretik, udako jaialdietan, herriz herri agur esateko modua ere izango du. Txapelketako ligaxka amaitzeko falta diren partiduetan Victor Estebanek ordezkatzuko

du. Faltza diren partiduetako bat Zornotzako pilotalekuan jokatu behar zuen, martxoren 5ean. Beraz, Beroizen bikotekidea Esteban izango da, eta Olaizola eta Urrutikoetxearen aurka jokatu dute biek.
Hiru final binaka
Aurrelari berriztarrak 1998an debutatu zuen profesionaletan, eta aurtengoa 18. denboraldia du. Sekula ez du lehen mailako txapelik jantzi, baina binakako hiru final jokatu ditu: 1999an Ruben Belokirekin, 2013an Jon Ander Albisurekin, eta iaz Aitor Zubietarekin. Albisurekin jokatu zuen hartan Akilesten tendoia apurtu zuen finalean bertan.

Castroviejok bi hezur hautsita erorikoan

> TXIRRINDULARITZA J. D.
2016 denboraldia ez da batere ondo hasi Abadiñon bizi den Jonathan Castroviejo (Movistar Team) getxoztarrantentzat. Algarveko Itzuliko (Portugal) azken etaparen ostean, Castroviejok eroriko bat izan zuen. Helmugatik autobusa zegoen aparkalekura bidean, ikusle bat ustekabean parera irten zitzaion, eta ezin izan zuen ekidin. Ospitalean hainbat azterketa egin zizkieten, eta hauxe diagnostikatu zioten: seigarren le-

paornoan haustura izan du, eta baita ezker besoko kubituan ere. Castroviejok azken egunetan jasotako animo mezuak eskertu ditu sare sozialen bidez, eta mezu hau ere utzi du: “Txirrindularitza ikusten doazen denei kontuz ibiltzeko eskatu gura diet. Zaleen berotasuna sentitzea itzela da guretzat, baina despiste batek istripu bat eragin dezake. Behin hori esanda, tupust egin nuen ikusleari animoak bidali nahi dizkiot, eta errekonferentziaren bat desio diot”.

Martinezek urre bi Espainiako txapelketan

> SALBAMENDUA J. D.
Durangoko Tabira igeriketa taldeko Natalia Martinezek urrezko domina bi lortu ditu Espainiako salbamendu eta sorospen txapelketan. 12 urte-gaz, haur kategorian lortu ditu domina biak; 100 metroko oztopodun proban bata, eta sorospeneko 100 metrokoan bigarrena. Gainera, azken proba horretan, ordura arteko Espainiako errekorra hobetzea lortu du. Valladoliden jokaturako txapelketan, urrezko bi domina

horiez gainera, brontzeko beste bi ere kolkoratu zituen 50 metroko proban eta erreleboetakoan. Azkenengo proba hori Lucia Jimenez, Sara Casado eta Aiala Garro taldekideekin batera irabazi zuen. Martinezentzat aurtengoa ez da estatuan dominak irabazten dituen lehenengo aldia. Aurretik ere erakutsi izan ditu bere dohaiak Espainiako txapelketan. Esaterako, iaz ere, txapeldun geratu zen 100 metroko oztopodun proban.

Abadiño ezin izan da nabarmendu onenen artean

> SOKATIRA J.D.
Abadiñok munduko sokatira txapelketan izan duen parte hartzea oharkabean joan da. Parte hartu duten pisuetako batean ere ez dira finalerdietarako

sailkatu. Orain urte bi zilarra jantzi zuten 560koan: “Apurtxo bat gehiago espero genuen” onartu du Edu Mendizabal entrenatzaileak: “Ondo ibili gara, baina beste batzuk hobeto”.



Abadiño Sokatira Taldea Herbehereetan. Chen Peng Wen

Ibilbide-aukera zabala, Elorrioko MTB martxan

> MENDI BIZIKLETA J.D.
Domeka honetan, Elorrioko XVII. Mendi Bizikleta martxa egingo dute. Herriko plazatik abiatuko dira, 10:00etan. Gaztetxo zein heldu, mendi bizikletagaz denek gozatzeko aukera izan dezaten, luzera eta gogortasun desberdinetako lau ibilbide antolatu dituzte. Laburrenak 6,5 kilometro ditu. 8-12 urte arteko gazteei begira diseinatu dute. Trebatuta dauden 13-16 urte artekoentzat 18 kilometroko ibilbidea prestatu dute; Betsaidera joan-etorria. Adin tarte horretan izen-ematea doakoa izango da, Elorrio Txirrin-


